



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/30

Bizkaiko Batzarrek "El Palankari" eskulturea eta sinaduren liburuak Gernikako Batzarretxetik desagertu izana salatzea eskatu deusie Aldundiari

Gaur arratsaldean Bilbon alkartu dan Euskera eta Kulturako Batzordeak "El Palankari" eskulturea eta sinaduren liburuak Gernikako Batzarretxetik desagertu izanaren gaia landu dau barriro be. Holan, Bizkaiko Batzarrek aho batez onetsi ditue Talde Mistoak aurkeztutako arauz besteko proposamen bi, Aldundiak "atoan" aurkeztu daian salaketa formala justiziaren aurrean, kultur ondare horren desagertzea dala eta. Proposamena aurkeztu dauen Arturo Aldecoa batzordekideak azaldu dauenez, "zuhurtziagaitik" egin behar da salaketea, jarduketa hori "legezko bultzadea" izango dalako berreskuratzeko, ondare hori enkanteren batean agertuko balitz.

Proposamen biek Batzarretako talde guztien aldeko eretxia jaso dabe. Dana dala, taldeek zalantzak agertu ditue, piezak berreskuratzeko aukerak dirala eta. Sinaduren albumaren kasuan, "XIX. mendearen bukaeratik 1979ra artean" Batzarretxera joandako bisitari ospetsuen sinadurak eta eskintzak dituen "hainbat liburuki" dira. Kasu horretan, Bizkaiko Batzarrek adostu dabenez, Foru Aldundiak "legezko ekintzak martxan jarri eta aurkeztu beharreko salaketak atoaan aurkeztu" beharko ditu, "bizkaitar guztion kultur eta historia ondarearen" parte diran liburu horreen desagertzea dala eta.

"El Palankari" eskultureak, "hiru metroko altuerea eta 200 kiloko pisua" daukan eskaiolaz egindako piezeak, Galdameseko meatzari bat irudikatzen dau eta, Aldecoa adierazo dauenez, 80ko hamarkadan "Gernikako Batzarretxea barriztetako obra batzuetan" desagertu zan. Batzarretako taldeek agindua emon dabe, Aldundiak, "zuhurtziagaitik" modu berean jardun daian. Kasu honetan, taldeek ez dabe uste piezea lapurtu zanik, daukan tamainua kontuan izanda.

ERREGE-BIDEAREN IBILPIDE TURISTIKOA

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzarrek, saio berean, Aldundiari eskaria egitea erabagi dabe, Bilbo eta Gernika arteko Zin-Bidea edo Errege-Bidea deritxanean oinarritutako ibilpide turistikoa eta kulturala sortzeko "azterlana" egin daian, Foruen zinagaz eta Bizkaiko Jaunen harrereagaz eta Jaurerriaren historiagaz erlazonauta dagon trazaua eta gertakari historikoak balioan jarteko.

Talde Mistoaren ekimenak EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoak eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen abstentzioa izan ditu. Gobernua eusten daben talde biek iragarri dabenez, Aldundia beharrean dago daborduko, bere kultur programazioaren barruan, "Bizkaia egituretan dauen" bide hori bultzatzeko ibilpide eta plan bat gauzatzeko. Plan hori "2018an" aurkeztuko da.

BIKEE EGITASMOA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Halaber, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatua, berak eskatuta agertu da Batzar Nagusietan, BIKEE ("Bizkaian kirola ere euskaraz") egitasmoa Batzarretako taldeen aurrean azaltzeko. Egitasmoaren helburua, Bizkaiko 44 kirol federazioen artean "euskerearen erabilera bultzatzea" da. Plana hasi da daborduko, "hipika, surf, pelota, eskubaloia eta herri-kirol" federazioen egoeraren diagnostiko bateratuagaz, eta Aldundiak aurreikusten dauenez, "iraila eta urria artean" plan pilotu bat jarri ahal izango da martxan "dozena erdi federazinotan", neurri orokorrak eta espezifikoak bultzatuz, euskerea hizkuntza "bizia" izan daiten.

Batzarretako taldeen galderei erantzuteko orduan, Bilbaok esan dau, izaera "orokorreko" neurriak, "jenteari arreta emoteko orduan, barruko komunikazioetan eta webguneetan eta sare sozialetan" euskerea indartzeagaz dagozala erlazionauta. Euskerearen presentzia handiagoa "ekitaldietara, lehiaketetara, entrenamentuetara eta kirol probetara" be helduko da.

Euskera eta Kultura sailaren helburua egitasmoa "urtebetean" garatzea da, eta federazioek egitasmoagaz bat egiteko aukerea izatea, bakotxarentzako neurri "espezifikoakaz", euskereak gaztelaniak daukan presentzia "bardina" euki daian, gaur egun "ez dagolako orekarik" hizkuntza bien artean, Bilbaok adierazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
30/05/2017

El Parlamento de Bizkaia pide a la Diputación que denuncie la desaparición de "El Palankari" y de los libros de firmas de la Casa de Juntas de Gernika

La comisión de Euskera y Cultura reunida esta tarde en Bilbao ha abordado nuevamente la desaparición de la escultura "El Palankari" y de los libros de firmas de la Casa de Juntas de Gernika. En este sentido, la Cámara vizcaína ha aprobado por unanimidad sendas proposiciones no de norma del grupo Mixto para que la Diputación presente "de inmediato" una denuncia formal ante la justicia por la desaparición de dicho patrimonio cultural. Según ha explicado el apoderado proponente Arturo Aldecoa, "por prudencia", esta actuación supondría un "apoyo legal" para su recuperación en caso de que apareciese dicho patrimonio en alguna subasta.

Las dos propuestas han contado con el apoyo de todos los grupos junteros que han dudado, sin embargo, de que las piezas puedan llegar a recuperarse. En el caso del álbum de firmas se trata de "varios tomos" que contienen firmas y dedicatorias de visitantes ilustres de la Casa de Juntas "desde finales del siglo XIX hasta 1979". En este caso, la Cámara vizcaína ha acordado que la Diputación Foral "ponga en marcha las acciones legales y presente de inmediato las correspondientes denuncias" por la desaparición de estos libros que forman parte del "patrimonio cultural e histórico de todos los vizcaínos".

En lo que respecta a la escultura "El Palankari", una pieza tallada en escayola de "tres metros de altura y 200 kilos de peso" que representa a un minero de Galdames, y que desapareció, según Aldecoa, "en unas obras de reforma de la Casa de Juntas de Gernika" en los años 80, los grupos junteros han apostado por que la Diputación proceda "por cautela" de la misma forma. En este caso, no creen que la pieza fuera sustraída debido a su tamaño.

RUTA TURÍSTICA DEL CAMINO REAL

Por otro lado, la Cámara vizcaína ha aprobado, en la misma sesión, "instar" a la Diputación a que realice un "estudio" para la creación de una "ruta turística y cultural en el Camino Juradero o Camino Real entre Bilbao y Gernika, que ponga en valor su trazado y sus hitos históricos relacionados con los lugares ligados a la jura de los Fueros y recibimiento de los Señores de Bizkaia y la historia del Señorío."

La iniciativa del grupo Mixto ha contado con el apoyo de PNV, PSE-EE, PP, y la abstención de EH Bildu y Podemos Bizkaia. Los dos grupos que sustentan al Gobierno han anunciado que la Diputación ya está trabajando dentro su programación cultural en un itinerario y un plan para relanzar dicha ruta "vertebradora de Bizkaia" que "será presentado en 2018".

PROYECTO BIKEE



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido en la comisión, a petición propia, para explicar a los grupos junteros el proyecto BIKEE ("Bizkaian kirola ere euskaraz") cuyo objetivo es "impulsar el uso del euskera" entre las 44 federaciones deportivas de Bizkaia. El plan se ha iniciado ya con el diagnóstico conjunto de situación de las federaciones de "hípica, surf, pelota, balonmano y deporte rural", y la Diputación espera que, "entre septiembre y octubre", se pueda poner en marcha un plan piloto "en media docena de federaciones" con medidas generales y específicas para que el euskera sea un idioma "vivo".

A preguntas de los grupos junteros, Bilbao se ha referido a que habrá medidas de carácter "general" que tienen que ver con potenciar el euskera en "la atención al público, las comunicaciones internas, y en las webs y redes sociales". La mayor presencia del euskera alcanzará también "a los eventos, las competiciones, los entrenamientos y las pruebas deportivas".

La intención del departamento de Euskera y Cultura es que el proyecto se desarrolle "en un año" y que las distintas federaciones puedan sumarse al mismo con medidas "específicas" para cada una de ellas, con el objetivo de que el euskera tenga una presencia "igualitaria" con respecto al castellano, ya que en la actualidad "no existe un equilibrio" entre ambas lenguas, ha sostenido Bilbao.